



Kodea:

## 3. maila (C1) | Azterketa idatzia

Deiturak:

Izena:

NA:

	Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Azterketa idatzia	Idazmena	15	30	90 min

Azterketa idatzia



HADE



2012ko lehen deialdia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





## Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta ondoren garatu eskatzen zaizuna kontuan hartuz.

## Oharrak:

- Idazteko boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Zure idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
  - eskatutakoari erantzun diozun
  - testu egokia osatu duzun
  - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun.

	Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Azterketa idatzia	Idazmena	15	30	90 min

---

**Zirriborroetarako orria**  
**(orri hau ez da zuzenduko)**



## 1. gaia

### Laneko jazarpena, ageri dena baino gehiago

*“EAEko 30.000 behargin inguruk lanean jazarpen-egoerak pairatzen dituzte. Horietako 14.000k presio psikologiko etengabea eta egunerokoa bizi dute”.*

#### Egitekoa:

Demagun, lantokiko ordezkari sindikala zarela eta gaiari buruzko **artikulua** idaztea erabaki duzula sindikatuko kideei banatzen zaien aldizkarirako.

Idatzi horretan, proposatutako gaiaren nondik norako nagusiak **azaldu**, zeure **iritzia eman** eta arazoari aurre egiteko **proposamenak egin** behar dituzu.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Iritzia emateko eta gaia garatzeko, **nahi izanez gero**, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- *Mobbing*-a: lantokian beste lagun baten aurka egindako eraso psikologiko sistematikoa.
- Jazarpen-motak: oihuak, irainak, bete ezin diren epeak, lanik ez ematea...
- Erasotzaileak: nagusiak (%73), maila bereko lankideak (%15), azpi-mailetako lankideak (%6) eta bezeroak (%6).
- Ekonomia-krisiak laneko jazarpena areagotu duela ohartarazi dute sindikatuek.
- Ondorioak, prebentzio neurriak...





## 2. gaia

### Ostalaritzako ordutegia luzatu?

*“Eusko Jaurlaritzak ostalaritzako ordutegia luzatu du, sektorea ‘suspertzeko’.  
Ostalariek ordubete atzeratu ahal izango dute ixteko ordua, batez beste;  
udalek eskumen gehiago izango dituzte”.*

#### Egitekoa:

Etxepean hainbat taberna eta jatetxe duzuenez, oso kezkatuta zaudete. Hori dela eta, atariko auzokideen izenean herriko aldizkarirako **artikulua** idaztea erabaki duzu.

Idatzi horretan, zeure ikuspegia **azaldu** eta erabakia bertan behera uzteko edota auzokideen eskubideak bermatzeko **eskatuko** diezu udal ordezkari.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Iritzia emateko eta gaia garatzeko, **nahi izanez gero**, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Asteburuetan ixteko ordutegiak: tabernak 02:30etan, pub-ak 04:00etan eta diskotekak 06:00etan.
- Ekainetik irailera bitartean, ordu erdi gehiagoz zabaldu ahal izango dituzte lokalak.
- Ostalarien aburuz, hobekuntza ekarriko du, nahikoa ez bada ere.
- Dekretu berriak eskumen gehiago ematen die udalei ‘*malgutasunez*’ jokatzeko.
- Kaleko zalaparta ez da amaitzen taberna ixten den unean.
- Oraingo ordutegia aski zabala da. Auzokideek ere badituzte euren eskubideak.



**Gaia:**

5

10

15

20

25

30

35

40

45

50



55

60

65

70

75

80



**Idazmena zuzentzeko irizpideak:**

- **EGOKITASUNA.** Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.
- **KOHERENTZIA.** Ideia nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.
- **KOHESIOA.** Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio sistema. Kohesio mekanismoen erabilera (anaforak, ordezkapenak, elipsiak).
- **ABERASTASUNA.** Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.
- **ZUZENTASUNA.** Gramatika-arauak (ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia). Gaiari loturiko lexikoa.

Hemen ez idatzi

Kodea:

Maila:

3

Idazmena

Puntuazioa:  
gehienez, 30  
gainditzeko, 15

EMAITZA

1. aztertzailea

sinadura

### Birzuzenketa dagoenean

Azken emaitza

2. aztertzailea:

sinadura

### IDAZMENERAKO IRIZPIDEAK

#### Egokitasuna (%20)

Lotzen zaie testua eskatutako gaiari, solaskideari eta xedeari? Lotzen zaie tonua solaskideen harreman-motari eta xedeari? Badaki lexikoa modalizatzen?

#### Koherentzia (%20)

Idea nagusiek eta lagungarriek era logikoan eusten diote elkarri? Diskurtsoaren egitura eta horren garapena hurrenkera logikoan daude eginda? Ideia horiek osotasun jakin bati erantzuten diote?

#### Kohesioa (%20)

Era eraginkorrean erabiltzen ditu testu-antolatzaileak, esaldien, paragrafoen eta testu osoaren arteko lotura egiteko? Badaki baliatzen puntuazio-sistema? Erabiltzen ditu kate anaforikoak (erreferentziak, ordezkapenak, elipsiak...)?

#### Aberastasuna (%20)

Hizkuntz baliabide ugari eta askotarikoak erabiltzen ditu? Esaldi landuak eta horien baliokideak baliatzen ditu? Baliabide du ordezkapen lexikala (sinonimia, antonimia...)?

#### Zuzentasuna (%20)

Gramatikaren arauak errespetatzen ditu (ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia...)? Gaiari loturiko lexikoa menperatzen du?

	Oso eskasa	Eskasa	Nahikoa	Ona	Oso ona	birz.
0	1,5	3	4,5	6		
0	1,5	3	4,5	6		
0	1,5	3	4,5	6		
0	1,5	3	4,5	6		
0	1,5	3	4,5	6		
OROTARA						

### Zuzenketa-oharrak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### Birzuzenketa-oharrak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Atzeko aldean jarrai dezakezu....

Atzeko aldean jarrai dezakezu....